



errigora

errigora.eus



Sarekideentzako txostena

**martxoak 10 - 30**

**Nafar hegoaldeko uzta  
eskutik eskura**

**Oinak  
lurrean**

**Bete ezazu  
despentsa  
urte guztirako**

## Oinak lurrean

Asmo handiak izanagatik, oinak lurrean ditugu. **Hazi egin nahi dugu, bai, baina ez edonola.** Errigoraren komunitatea koskortzen ari da eta gero eta produktu gehiago eskatzen dio Nafarroako baratzari. Baina, plateretik baratzarako bidea ezin da izan autopista bat, ezpada bidezidor eder bat. Izan ere, gure xede nagusietakoa da, emeki-emeki, bestelako ekoizpen eta banaketa-ereduak ohiko bihurtzea.

Go-rako eskaera honek balio behar du gero eta handiagoa izan dadin bestelako ekoizpen-ereduen arabera lantzen den lur-eremuaren zatia, eta bestela bana dadin bere uzta. Balio behar du ekoizleen artean gero eta gehiago izan daitezkeen agroekologiaren printzipioen arabera aritzen direnak. Eta balio behar du euskarak ekoizpenaren eremuan ere bide egin dezan.

Horrextan ari gara azken urteotan, Errigorarekin bat egin duten milaka herritarren ekarpena aipatutako asmoak betetzera bidera dadin. Lur-eremu berriak jarri ditugu bestelako ereduaren esku, kanpotik ekartzen genituen produktuen ekoizpena gurean berreskuratzen lagundu dugu, hainbat ekoizleri ekologikora trantsizioa egiteko bultzada eta babesa eman diogu eta euskarari olio-erota eta kontserba-etxeetako ateak zabaltzeko dizkiogu. Bistan da hori guztia ez dela egun batetik bestera egiterik; oraindik bide luzea dugu elikadura-burujabetzara, baina, sarri esan dugun bezala, ekoizteko erak aldatzeko bide eraginkorra izan daiteke kontsumitzeko modua aldatzea.

## Eskaintza

### Berrikuntzak

Azken urteetako eskema errepikatuko dugu aurtengoan ere: urte guztirako eskaerak egitea da planteatzen duguna eta, hortaz, oliba-olio birjina estra bidoi handietan eskainiko dugu eta gainontzeko produktuak 12 unitateko sortetan. Edonola ere, ohikoa denez, hainbat berrikuntza izango dira aurtengoan:

- Olioaren kasuan, bi berrikuntza jasotzen ditu eskaintzak:

↳ Batetik, olio ez-ekologikoaren kasuan, arbekina barietatea ere eskainiko da.

<p>Bardea La Casa del Aceite</p>  <p><b>EKO</b></p> <p><b>Arbekina</b> Oliba-olio birjina estra ekologikoa 5 LITROKO ONTZIA <b>33€</b> 6.60€/l</p>	<p>Biosasun Enara</p>  <p><b>EKO</b></p> <p><b>Arroitz</b> Oliba-olio birjina estra ekologikoa 5 LITROKO ONTZIA <b>35€</b> 7.00€/l</p>	<p>Bardea Biosasun Enara</p>  <p><b>EKO</b></p> <p><b>Arroitz + arbekina</b> Oliba-olio birjina estra ekologikoa 2 LITROKO 2 ONTZI <b>31€</b> 7.75€/l</p>	<p>Castillo de Abiltas</p>  <p><b>Enpeltre</b> Oliba-olio birjina estra 5 LITROKO ONTZIA <b>22€</b> 4.40€/l</p>	<p>La Casa del Aceite Castillo de Abiltas</p>  <p><b>Arbekina</b> Oliba-olio birjina estra 5 LITROKO ONTZIA <b>22€</b> 4.40€/l</p>	<p>La Casa del Aceite</p>  <p><b>Pikual</b> Oliba-olio birjina estra 5 LITROKO ONTZIA <b>22€</b> 4.40€/l</p>
---	---	--	--	---	---

- ↳ Bestetik, olio ekologikoaren kasuan, arroitz eta arbekina bariatateko **2 litroko bidoi banaz osatutako pack berria** eskainiko da. Aukera honek, ekologiko/ ez-ekologiko balantza ekologikoaren aurka desorekatzeko arriskua ekiditeari erantzuten dio, baita bidoi formato txikiago eta erabilerrazago batek izan dezakeen harrera neurtzeari ere.

 <p><b>Zainzuriak</b> Zainzuri zuri lodiak (6/12) 370ML-KO 12 ONTZI <b>45€</b> 3.75€/u</p>	 <p><b>Zainzuriak</b> Zainzuri zuri lodiak (8/12) 425ML-KO 12 ONTZI <b>43€</b> 3.58€/u</p>	 <p><b>Piperrak</b> Pikillo piper osoak (9/12) 250ML-KO 12 ONTZI <b>38€</b> 3.17€/u</p>	 <p><b>Piperrak</b> Pikillo piper osoak (18/22) 425ML-KO 12 ONTZI <b>34€</b> 2.83€/u</p>	 <p><b>Orburuak</b> Orburu bihotzak 720ML-KO 12 ONTZI <b>82€</b> 6.83€/u</p>
 <p><b>Orburuak</b> Orburu bihotzak 720ML-KO 12 ONTZI <b>67€</b> 5.58€/u</p>	 <p><b>Kardua</b> Kardu zuritua 720ML-KO 12 ONTZI <b>27€</b> 2.25€/u</p>	 <p><b>Kardua</b> Kardu zuritua 720ML-KO 12 ONTZI <b>25€</b> 2.08€/u</p>	 <p><b>Menestra</b> Barazki-menestra 720ML-KO 12 ONTZI <b>66€</b> 5.50€/u</p>	 <p><b>Potxak</b> Potxa zuri eta berdeak 720ML-KO 12 ONTZI <b>43€</b> 3.58€/u</p>
 <p><b>Barazkiak</b> Borrajak eta zerba-penkak 720ML-KO 12 ONTZI <b>38€</b> 3.17€/u</p>	 <p><b>Barazkiak</b> Borrajak eta zerba-penkak 720ML-KO 12 ONTZI <b>30€</b> 2.50€/u</p>	 <p><b>Tomatea</b> Tomate fritua 370ML-KO 12 ONTZI <b>23€</b> 1.92€/u</p>	 <p><b>Tomatea</b> Tomate fritua 370ML-KO 12 ONTZI <b>19€</b> 1.58€/u</p>	 <p><b>Txixirioak</b> Txixirioak 720ML-KO 12 ONTZI <b>27€</b> 2.25€/u</p>
 <p><b>Kremak</b> Askotariko barazki-kremak 500ML-KO 12 ONTZI <b>34€</b> 2.83€/u</p>	 <p><b>Arroza</b> Lido arroza KILOKO 12 PAKETE <b>26€</b> 2.17€/u</p>	 <p><b>Arroza</b> Arroz zuri erdiluzea KILOKO 12 PAKETE <b>55€</b> 4.58€/u</p>	 <p><b>Pasta</b> Askotariko pasta 400GR-KO 12 PAKETE <b>37€</b> 3.08€/u</p>	 <p><b>Lekaleak</b> Dilista eta txixirio lehorrak KILOKO 12 PAKETE <b>59€</b> 4.92€/u</p>

- Sortei dagokienez, berrikuntza nagusia lekaleena da. Izan ere, **lehenbiziko aldiz eskainiko dugu seina pakete dilista eta txixirioz osatutako sorta**.
- Azkenik, barazki-sorta ekologikoa ere eskainiko dugu, kontserban, seina ontzi borrajak eta zerba-penkaz osatua, ez-ekologikoaren kasuan egiten den bezala.

## Mugak

Azken urteotan ekoizpenaren eremuan egiten ari garen lanari jarraiki, iaztik hona ere pausak eman ditugu Errigoraren komunitatearen eskaerari erantzun ahal izateko. Oliba-olio birjina estraren kasuan, esaterako, iaz baino litro kopuru handiagoa izatea lortu dugu eta, eskaintza zabaldua, iaz eskatutakoa ez ezik, balizko hazkunde bati erantzuteko moduan ere bagara. Kontserben kasuan, aldiz, orokorrean, stocka iazkoa baino handiagoa izan arren, **gaur gaurkoz ez gaude hainbat produktu muga gabe eskaintzeko moduan** eta, beraz, bestelako asmoak izanagatik, aurten ere eskaerak *online* edo telefonoz egin ahal izango dira soilik.

Muga handienak orburu eta barazki-menestra ekologikoen kasuan ditugu, **abenduko uholdeen eraginez**, batik bat. Izan ere, kanpaina honetarako erabili behar ziren orburu ekologikoen landaketak Ebrotik gertu daude eta ibaiak gainez egin zuenean uztaren parte handi bat galdu zen. Gainera, biziraun zuten orburu landareak berriz loratu beharko dira eta horrek orburu-kanpaina atzeratzea ekarriko du.



Ebroko urek guztiz estali zituzten lur-eremu handiak abenduaren bigarren astean

Edozein kasutan, datozen urteei begira lan bikoitza egiten ari gara, etenik gabe:

- Batetik, egun mugatuen ditugun produktuen ekoizpena (potxa eta pikillo piper ekologikoena, batez ere) handitzeko, lur-eremu berrien bilaketan zein nekazari eta transformatzaileen arteko elkarlana sustatzeko ahaleginetan.
- Bestetik, eskaeraren aurreikuspenari eta stock mugaren arazoari irtenbide erradikalagoak topatzerik dagoen aztertzen ari gara.

## Prezioak

Gutxi-askok igarri dugun bezala, orokorra izan da azken hilabeteetan prezioen igoera eta, nola ez, ekoizleei ere **ekoizpen-gastuak —hala nola garraioak, ontziak edo kartoia— nabarmen igo zaizkie**. Hortaz, hainbat produktutan prezioa mantendu egin den arren —baita behera egin ere kardu ekologikoaren kasuan—, kasu batzuetan igoera handiak egongo dira aurtengo eskaintzan.

Edozein kasutan, kanpora begira **ez diogu prezio igoerari aparteko azpimarrarik**

**egingo**, eta, beti ere, kanpaina honen eta Errigoraren jokatzeko eran jarriko dugu arreta:

- Batetik, gogoraraziko dugu **Errigoraren filosofian ez duela lekurik ekoizleak estutzeko praktikak**. Ekoizleak dira prezioak ezartzen dituztenak, kate osoan parte hartu duten langileek ordainsari duina jasotzen dutela bermatzeko irizpidearekin beti ere.
- **Prezioa kontsumitzaileentzat ere bidezkoa** izate aldera, kanpaina honetan ekoizleek haien kontserba-etxera, olio-errotara edo dena delakora doakion erosleari salduko liokeen prezio berean eskaintzen dizkiogu produktuak norbere herrian, borondatez aritzen diren ehunka auzolangileen ahaleginari esker.

## Eskaerak

Hainbat produkturen izakinak mugatuak izaki, ezinbestekoa izango zaigu unean uneko stockaren kontrola eramatea. Beraz, aurten ere ez da izango eskuorri bidez eskaerak egiteko aukerarik. Izan ere, eskuorriak multzoka jasota ez genuke eskaeren hurrenkera kronologikoa ezagutzeko modurik. Gauzak horrela, gure **webgunea izango da eskaerak jasotzeko bide nagusia**.

Hala ere, eskuorri bidez eskaerak egiteko aukerarik ez izatea inorentzat muga izan ez dadin, **telefono bidez ere egin ahal izango dira eskaerak**, azken kanpaina bietan bezala. Zenbakiak mantendu egingo dira: Hegoaldetik deitzeko +34 848 87 12 23; Ipar Euskal Herritik, ostera, +33 532 09 35 45. Aurtengoan, baina, arreta-ordutegia 9:00etik 13:30era murriztuko dugu, astelehenetik ostiralera, iazko kanpainako deien ordutegiak aztertuta, horixe baita dei gehien jaso zuen tartea.

Bi bide hauetatik aparte heltzen zaizkigun eskaerak erregistratzeko modua ere izango da, aurrekoetan bezala, web plataformaren bidez. Hala ere, garrantzia bizikoa izango da momentuan erregistratzea. Bestela, agortutako produktuak eskatu dituztenek produktuok ez jasotzeko arriskua dute, eskaera egitean oraindik agortu gabe egon zitezkeen arren.

## Egutegia

- Eskaerak egiteko epea: martxoak 10 – 30.
- Datuak sartzeko epea: aparteko eskaerarik helduko balitzaigu, jaso ahala erregistratu (azken eguna martxoak 31).
- Behin betiko datuak: apirilak 1.

MARTXOA	28	1	2	3	4	5 topaketak Allon	6
	7	8	9	10	11	12	13
	14	15	16	17	18	19	20
	21	22	23	24	25	26	27
	28	29	30	31 zatikaturako ordainketa-epena	1 behin betiko datuak	2	3
APIRILA	4	5	6	7	8	9	10
	11	12	13	14 (HEH)	15 (HEH)	16	17
	18	19	20	21	22 online ordain- tzeko epemuga	23	24
	25 Bizkaia	26 Bizkaia	27 Bizkaia	28 (AR) Bizkaia	29 Bizkaia	30 Bizkaia	1
MAIATZA	2 Nafarroa + Ipar EH	3 Nafarroa	4 Nafarroa + Ipar EH	5 Nafarroa	6 Nafarroa + Araba	7	8
	9 Gipuzkoa	10 Gipuzkoa	11 Gipuzkoa	12 Gipuzkoa	13 Gipuzkoa	14 Gipuzkoa	15
	16	17	18	19	20	21	22
	23	24	25	26 (IEH)	27 ordaintzeko epemuga	28	29

- *Online* ordainketa egiteko epea (eskaera egiteko unean egin ez badute):
  - ↳ Bi zatitan ordaintzeko (150€tik gorako eskaeren kasuan soilik): martxoak 31.
  - ↳ *Online* ordaintzeko azken eguna: apirilak 22.
- Deskargak (produktu guztiak batera):
  - ↳ Bizkaia: Apirilak 25-30
  - ↳ Ipar EH: Maiatzak 2 eta 4
  - ↳ Nafarroa: Maiatzak 2-6
  - ↳ Araba: Maiatzak 6
  - ↳ Gipuzkoa: Maiatzak 9-14
- Eskudirutan jasotako diru-sarrerak: maiatzaren 27ra arte.
  - ↳ Plataforman izango da diru-sarrerak egiteko informazioa
  - ↳ Oso garrantzitsua da kontzeptua errespetatzea

## Erronkak

Zailtasunak zailtasun, aurtengo kanpainan iazko emaitza paregabeak hobetzeko erronka jarri diogu gure buruari. Ondotxo dakigu, honezkeror, Errigoraren sarea osatzen duten boluntarioak direla kanpaina eremu berrietara iris dadin eragile nagusiak, nazio-mailan komunikazioan eta publizitatean egin daitezkeen ahalegin guztiak baino askoz gehiago. Herriz herriko lagun eta taldetxoek eragina handitzeko asmoz, beraz:

- Ekimenak indartzen saiatuko gara.
  - ↳ Batetik, Errigoraren sarekideek elkar ezagutu eta ekoizle batekin topatzeko egun berezia antolatuko dugu **martxoaren 5ean Alloko Biosasun olio-errotan**.
  - ↳ Herriz herri kanpaina hauspotzeko ekimenak sustatuko ditugu, horiek utzitako **irudiak** (argazki eta bideoak) **ahalik eta kalitate onean jasotzeko ahalegina** eginez. Horretarako, irudiak whatsapp edo telegram bidez baino, ondorengo loturara igoko ditugu, kalitaterik gal ez dezaten: <https://labur.eus/igo-irudiak>
- Desiragarriena ahal bezainbeste tokitan egitea den arren, hiruzpalau herri/ eskualdeetan boluntarioen **sarea indartzeko saiakera** berezia egingo dugu.
- 12 herritan iazko **kontsumitzaile berriak fidelizatze**ko proba-pilotua egingo dugu.



**igo irudiak hemendik**